

ERAKUNDEAREN KONPROMISOEN BERRI EMATEKO KOMUNIKATUA BERDINTASUNAREN ARLOAN ETA DIPCren II. BERDINTASUN PLANA ABIAN JARTZEARI DAGOKIONEZ

Donostian (Gipuzkoa), 2025eko uztailaren 21ean

Donostia International Physics Center Fundazioan badakigu gure kudeaketak gizartearen behar eta eskaerekin bat etorri behar duela, eta, horregatik, konpromezu hauek hartzen ditugu berariaz eta publikoki:

- Pertsona orok tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez jasateko duen eskubidea aitortzen da; inor ez da diskriminatua izango honako arrazoiren batengatik: jaiotza, arraza edo jatorri etnikoa, sexua, erlijioa, sinesmena edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu-orientazioa edo identitatea, genero-adierazpena, gaixotasuna edo osasun-egoera, egoera serologikoa eta/edo patologikoak edo osasun egoerari loturikoak, hizkuntza, egoera sozioekonomikoa edota beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozial, barnean hartuta haiek pairatzeko joera genetikoa.
- **Zero tolerantzia** erakundean sexu-jazarpenarekiko, sexuan oinarritutako jazarpenarekiko edo lan-eremuan sexu-askatasunaren eta integritate moralaren aurkako edozein jokabideekiko.
- **Zero tolerantzia**, sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik eta/edo genero-adierazpenagatik jazarpentzat hartzen diren jardura diskriminatzaileekiko erakundearen barruan daudenean.
- Gure erakundean emakumeen eta gizonen arteko **berdintasunerako plana** egitea, arlo horretako legeriak ezartzen dituen jarraibideei jarraituz, eta, beraz, tratu-eta aukera-berdintasunaren printzipioa erabat integratuz, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako **3/2007 Lege Organikoan** jasota dagoen bezala; asmo hori gauzatzeko, **Berdintasun Batzordea/Taldea** osatu dugu, indarrean dagoen araudiak ezartzen duenaren arabera.

Konpromezu hauek gauza daitezen, zuen laguntza eta babesa behar dugu; prozesuan zehar, egingo diren ekintzen berri emango dizuegu, eta ekintza horietako batzuk aurrera eramateko zuen laguntza eskatuko dugu.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, aldez aurretik, horretan emango duzuen denboragatik eta proiektu hau gure erakundearentzat arrakastatsua izan dadin erakutsiko duzuen aldez aurretiko jarreragatik.

Zuen esanetara gauzazue,



Ricardo Díez Muiño
Zuzendaria